

# *ttipi-ttapa*

1992.eko Urriak 29

96. zenbakia

dohain banatzen da




**ELIZONDOKO FERIAK**

**Saltzaile eta erosleen zitalekua**

**VALPADANA®**

**TRAKTORE ETA TRAKTOKARROAK**  
**ARTIKULATUAK, TRINKOAK eta BIHURGARRIAK**



✓ 20 HPTIK 80 HP BITARTEKOAK

- ☛ MOTOAITZURRAK
- ☛ SEGADORAK
- ☛ MOTOSIERRAK
- ☛ DESBROZADORAK
- ☛ PIRULETAK «MORRA»

☛ KONPONKETA ETA SALMENTA TAILERRA

GUILLERMO TXOPERENA, TFNOA: (948) 63 79 95 - IGANTZI

**IRAGARKI HAU 5.300 ETXETAN SARTU DA.**

**ZUREA ERE SARTUKO DA**  
**PUBLIZITATERAKO**  
**ttipi-ttapa AUKERATUZ GERO.**

# non-zer

**4 AGENDA** Beharrezko telefonoak eta hurrengo alea argitaratu arte inguru hauetan gertatuko diren bilera, erakusketa, ibilaldi, ikastaro, musika kontzertu etabarren agenda.

**7 HONTAZ ETA HARTAZ**

**8 IRAKURLEAK MINTZO**

**9/36 HERRIZ HERRI**

Herrietako berriak: Bortziriak, Malerreka, Sunbilla, Bertizarana, Baztan, Zugarramurdi, Urdazubi, Sara, Leitza, Goizueta... Elizondoko ferien koadernillo berezia.

**37 KIROLAK:** Lehen eta bigarren mailako aizkolari txapelketak jokatu dira Elizondo eta Donezteben

**38 ERREPORTAIA:** «Lesakako Laminaciones» en etorkizuna inoiz baino ilunagoa

Joseba Igarabide

**40 ELKARRIZKETA:** «Azaro antimilitarista»: Eskualdeko Intsumiso taldeak antolatutako bake aldarrikapena

Joxemanuel Irigoien

**42 MERKATU TTIKIA**

## ttipi-ttapa

HAMABOSTEKARIA

Lege Gordailua: NA-1324/85  
Tirada: 5.300 ale

Herriko Etxeko Plaza, 1  
31780 BERA  
Tfnoa.: 63 11 88  
Faxa: 63 12 91

**Erredakzio arduraduna:** Josemanuel Irigoien **Publizitate arduraduna:** Miren Karnele Tolosa **Erredakzio taldea:** Aitor Arozena, Patxi Larretxea, Pello Apezetxea, Edurne Rekondo, Bittori Telletxea **Ale honetan parte hartu dute:** Oskar Txoperena, Pello Apezetxea, Jon Larretxea, Txema Aldabe, Alizia Olaizola, Iban Isasi, Juainas, Koro Irazoki, Margari, Sara, Natalia, Txema Urrotz, J. Igarabide, Antton Erkizia, Juana Mari, Olhain Elkartea, Esteban Arozena, EHNE Nafarroa, Josetxo Susperregi eta Mattari-k. **Argitaratzailea:** *ttipi-ttapa*. **Laguntzaileak:** Bortziritako Euskara Mankomunitatea, Nafarroako Gobernuia....

**Inprimategia:** Gertu Kooperatiba Elkartea (Oñati)

*ttipi-ttapa* aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako erranen eta eritzien erantzunkizunik.

**Beharrezko telefonoak**

SOS Nafarroa / Urgentziak...088/061

**OSASUN ZENTRUAK**

Elizondo.....452367 / 580235

Doneztebe ..... 450300

Lesaka.....637428/637336

Leitza .....510248 / 510573

**KONTSULTAK**

Arizkun ..... 453039

Gartzain ..... 580451

Oronotz-Mugaire ..... 592024

Ituren ..... 450183

Sunbilla..... 450283

Goizueta ..... 514067

Igantzi ..... 637755

Arantza ..... 634131

Bera..... 630929 / 630036

Etxalar.....635105

Urdazubi.....599130

**ANBULATORIOAK**

Irun ..... 630264/621106

**OSPITALEAK**

Irungo ospitalea ..... 614600

Nafarroako ospitalea ..... 102100

SSko urgentzi zerbitzua ..... 246750

Virgen del Camino

erresidentzia ..... 109400

Gurutze Gorria ..... 226404

**ANBULANTZIAK**

Oitz ..... 450242/450342

**DYA**

Lesaka (larrialdiak).....(943) 464622

Doneztebe (larrialdiak)..... 171717

**FUNERARIA**

Lesaka.....637404

Elizondo .....580924

**SUHILTZAILEAK**

Oronotz-Mugaire ..... 592044

**GARRAIOAK**

Bidasarra ..... 630279

Baztanesa ..... 580129

Leitzarain ..... 515018

**HIRUGARREN ADINARENDAKO ZENTRUAK:**

Elizondo ..... 580730

Lesaka ..... 637154

Bera ..... 630261

**ABERIAK:**

Iberduero ..... 450335/450336

**Botikak**

► **Urriaren 31-Azaroaren 1ean,** Arantza, Narbarte eta F. Iturralde (Elizondo).

► **Azaroaren 7-8an,** Lesaka, Sunbilla eta F. Elizalde (Elizondo).

**Deialdiak**

► **IGANTZI,** Azaroaren 6an, Euskara Batzordearen bilera.

► **LESAKA,** Azaroaren 6an, Euskara Batzordearen bilera.

► **BERA,** Azaroaren 10ean, Euskara Batzordearen bilera.

► **ETXALAR,** Azaroaren 11an, Euskara Batzordearen bilera.

► **ARANTZA,** Azaroaren 12an, Euskara Batzordearen bilera.

**Ekitaldiak****BERA****II. PERRETXIKO IHARDUNALDIAK**

Azaroaren 5tik 8ra. 5ean, 7,30etan hitzaldia Iamotenean: *Zer dira onttoak?*. 6an, 7,30etan hitzaldia Ehizi eta Arrantza elkartean: *Ontto jangarri eta kaltegarriak*. 7an, ontto biltzera eta erakusketa.

**BERA****BURUHAUNDIAK eta DULTZAINEROAK**

Azaroaren 1ean, 12etan Altzaten.

**BERA****BERA eta ALTSASUKO ABESBATZEN SAIOA**

Azaroaren 7an, 7,30etan, Kultur Etxean *Antolatzailea:* Udal Kultur Batzordea.

**Feriak**

► **ELIZONDO,** Urriaren 30ean,azienda feria, bertsolariak, pilota partiduak...

**Bota bertsoa****Bitor ELIZAGOIEN**

**Gaia:** Elizondoko Feria

**Doinua:** Egañaren doinua

Merkatuzelain egongo dira salgai hainbeste abere kanean berriz milaka turroi goxoak bezain suabe Don Joxe Marik oferta onak eta hainbat kalidade «ajos de Corella» ere salgai egongo dirade mila pezetan hiru txandal ta zazpi-zortzi zapin pare bainan etxera joango zarete hala ere sosik gabe.

Feri Eguna besta polita bere abere ta guzi jende helduek kentzen diote besta horri hainbat grazi gizonek besta eta andreek arropa asko erosi baina atzeka goazi hori ez al da itxusi gazte jendea pentsatzen ere noiznahi daitezela hasi edo gazteek ez ote dute dibertitzerik merezi.



# AGENDA

## Ekitaldiak

### SAN FERMIN ELKARTEKO JUBILATU EGUNA

#### ► LESAKA

Azaroaren Iean, 11,30etan meza eta 2etan bazkaria Kasinon, Garmendia, Azpillaga, Lazkao-txiki eta Arozena bertsolariekin. Ondoren Beti-Jai taldearekin dantzaldia.

## Zinema

#### ► DONEZTEBE

Urriak 31a eta azaroak 1, "Arma letal 3".  
Azaroak 7-8an, "Alto omi madre dispara"

## Erakusketak

#### ► BERA

AMERIKETAKO  
KULTUR HERRITARRAK  
Kultur Etxean Urriaren 24tik urriaren 31ra. **Antolatzailea:** Udakultur batzordea.

## Gastronomia

### KALABAZIN PASTELA

#### Osagaiak 6 lagunendako:

1.250 gr. kalabazin, 3 dl esne gain, 50 gr. gurina, gatza, sei arraultze, perrexila eta piper hauts beltza.

Kalabazina garbitu eta lodi xamar railatu. Irazki batean gatzatu eta ordu batez ura



Pepita ZUBILLAGAk emana  
LESAKA

botatzen utzi. Ur hotzean pasa, zapi baten gainean

paratu eta ondo-ondo estutu ur guzia bota arte. 35gr. gurin zartagi batean urtu eta kalabazina 8-10 minutuz su xuabea egin. Ontzi batean arraultzeak, esne gaina, kalabazina, perrexila, gatza eta pimenta beltza nahastu. Gurinez igurtzitako molde batean paratu eta "baño marian" ordu t'erdiguruz eduki. Hoztutakoan moldetik atera eta xerratu. Platerean mahonesaz la-gundu

## Baserriko feria



#### ► ZERRIKIA

•Zerrikumea (20 kilokoa): 3.700 pzta. **Zerri gizona** (95-100): 135 pzta/kilo **Zerramak:** 65-85 pzta./kilo bizirik.

#### ► BEHIKIA

•Aretze gizenak:  
**Idixkoak:** Pzta/kg. Kanal Extra.....530-540  
1.koa.....500  
2.koa.....425

**Urruxak:** Pzta/Kg. Kanal Extra.....550  
1.koa.....515  
2.koa.....435  
Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 Kg. dituzten urruxentzako.

#### •Behi zaharrak:

Behi nabar gizona: 330 Pzta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 400-420 Pzta./Kg. Ka-

nal.


#### •Aretze tikiak

(15 egun inguru):

**Nabarrak:** urruxak 12.000 eta idixkoak 15.000-22.000 Pzta.

**Mestizoak:** urruxak 25.000 eta idixkoak 30.000-40.000 pzta.

Datu-iturria: EHNE-Nafarroa



## MALDAERREKA S.A. FUNERARIA ZERBITZUA

Bittiria karrika -Tfnoa: 637404- LESAKA

# LEGARRA

PAPERTEGIA  
TABAKOAK  
LIBURUAK  
OPARIAK

Legarrea 9, Tfnoa: 637030 LESAKA



MUSIKA DENDA  
BERA ☎ 631059

- Diskoak,
- Metodoak,
- Musika-Tresnak,
- HI-FI soinua,
- Soinu Profesionala,
- Ekipoen Alokairua...



**Luis Zabaleta**  
Leitzako "Arakindegikoa"

- ▶ **Zer nahiago, jota ala vals-a?** Lehen jota, orain vals-a.
- ▶ **Ezkonduta bizi ala mutil-zahar?** Ezkondua.
- ▶ **Lana ala Benidorm?** Lana.
- ▶ **Rubiak ala morenak?** (duda) rubiak.
- ▶ **Gantzontzillo luzeak ala modernoak?** Modernoak.
- ▶ **Babarrunak ala porrua patatakin?** Baba beltzak.
- ▶ **Ardo gorria ala ardo beltza?** Ardorik ez, ura.
- ▶ **Julio Iglesias ala "Markesaren alaba"?** "Markesaren alaba", dudarik gabe.
- ▶ **Oraingo "Arakindegia" berria ala lehengoa?** Oraingoa.
- ▶ **Negozorako, kanpotarrak ala herrikoak?** Herrikoak.
- ▶ **Burua ala bihotza?** (duda), burua.
- ▶ **Buru hutsik ala zapela?** Aizu!, hamaika galderak pasa ziren, hau hamaigarrena da.

### ▶ Balas Blancas Barricada 1992

"Balas Blancas" izenburupean kaleratu du Barricada talde txantrearrak bere urteroko diskoa. Izan ere, rockaren merkatuan buru belarri sartua dago gure talderik internazionalena.

"Noche de Rock&roll" bere lehen diska hartatik asko aldatu direla ez da inongo nobedadea. Hemengo disketxe batekin hasi ziren, letra eta musika gogorra eta gure inguruan baka-riek ezagunak. Gaur egun multinazional batekin lan egiten dute, letra eta



Manolo Gil-ek egin du diskaren portada eta bideoa

musika xuabetu dute eta estatu osoan aski ezagunak dira. Bartzuentzat traizioa, bertzeentzat eboluzioa.

Egia erran, asken diska honetan kitarra soinuak indartsuagoak dira, aho-

tsak, berriz, pop kutsua hartzen dute. Estudio lana gehiago nabari da eta bateria akustikoa da, aurreko diskoetan programatua bazegoen ere.

Arrazakeriaren kontrako kantatik atera

dute singlea baita diskaren izena ere: "Balas blancas para la oveja negra" dio letrak.

Bertze arrakasta segurua izanen da, noski, ez bait dago baltete gaizki diska.

AITOR

## ZIZKA OSTATUA

**Martxa eta mozkor saltsa**  
Altzate 28 - BERA

❖ Zure ingurua klase guzitako insektuz (xomorro, zinaurre, armiarma, kukuxu...) eta arratoi-xagutxo garbitu nahi baduzu, deituz! Gu arduratuko gara horretaz!

**BERA**  
DESINFECCIONES

☎ 63 01 55

BERA



LIBURU BILDUMEN BANATZAILEA  
IKASTOLA, ESKOLA, ELKARTE ETA  
KULTUR ETXEETAKO  
LIBURUTEGIAK OSATZEKO  
BEHAR DIREN BILDUMAK

**AMETS LIBURUAK**

☎ 63 12 67 - BERA



## SANTAMARIA

**Jatetxea**

Espezialitatea euskal sukaldaritzan  
Eguneroko menua eta karta  
Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE



**Elizondoko** Urriko feriak edo merkatu egunak hasiera ofiziala emanen dio hilaren 30ean eskualdeko feria denboraldiari. Erdikaldeko koadernilloan, azken urteotako argazki ugari ikus dezakezue. Elizondon ondotikan, hor etorriko dira erraldoan Doneztebekoa eta Lesakakoa. Beraz, hemendik aintzinerara,azienda eta baratzuri usaia hedatuko da gure karriketan barrena.



Gure herrietan destinatuak dauden mediku eta Nafarroako Gobernuko bertzetuntzionarioek nahitanahiez euskaraz jakin behar dutela dio indarrean dagoen Euskararen Legeak. Halere, Gobernuak bera da legea betetzen ez duena eta ondorioz, zonako hainbat udal, mankomunitate eta erakundeek bertzetuntzionarioak idatziz zuzendu dizkiote Gobernuari, Legeak dioena betetzea eskatuz.

## Zonako ostalaritza enpresariak elkarte berria sortu dute

*Erakunde berrian, Baztan, Malerreka eta Bortzirietako hotel, hostal eta fondak daude*



Beraien interesak defenditu eta kalitatezko turismoa bultzatzeko helburu nagusiarekin Bertizko Hotel, Hostal eta Fonden Enpresarien Elkarteak sortu berria da. Momentuz, zonaldean lan hauetan ari diren 20 enpresetatik 8 sartu dira proiektu honetan: Urdaizubiko Indianobaita eta Beotxea fondak, Arizkungo Etxeberria, Elizondoko Saskaitz hotela,

Elgorriagako fonda, Zubietako Herriko Ostalua, Donamariako Benta eta Lesakako Irubide. Gai nontzeko hamabi enpresak ere elkartearen sartzeari espero da.

Elgorriagan egindako bileran zuzendaritza batzordeko bertz kideak aukeratu ziren, Donamariako Imanol Luzuriaga izanen delarik lehendakaria. Inziziatiba hauek berriak dira gure zonan.

### INFORMAZIOA:

- ✍ Nominak
- ✍ Aseguro Sozialak
- ✍ Lan-kontratu bonifikatuak
- ✍ Enpresa berrien sortzea
- ✍ Diru-laguntzak
- ✍ Errenta Deklarazioak
- ✍ Kontabilitateak

## ARTEKARI S.L.

ASESORIA FISKAL ETA LABORALA

KONTSULTAK, AINTZINETIK ORDUA ESKATUZ

### LESAKA:

- Asteazkenero, goizeko 10etatik arratsaldeko 6etara.
- Non:** MALDAERREKA S.A., Bittiria 6, Tfnoa: 637404

### IRUÑEA:

- Bulego Zentralean: ARTEKARI S.L, Tfnoa: 17 55 40
- Non:** Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.





## BORTZERRIETAN EUSKARA OFIZIALA?

Maiz aditu dugu legea egitearekin batera hau ez betetzeko trikimailua asmatzen dela. Baina... orain arte, legea boteredunak egiten zuten eta boterepekoak ziren, nolabait errateko, lege horren aurkako antidotoa bilatzera saiatzzen zirenak.

Gauzak, nonbait, aldatu egin dira, okerrera egiteko bertzerik ez bada ere, eta sinestekoa ere!, gure Hizkuntza Nazionala, Euskara, da al-

daketa hau jasan behar izan duena.

PSOE-UPNko jauntxo berriak "Ley del Vascuence" delakoa erditu zuten, gure herrialdean Euskara "babesteko", euskaltzale guztien gaitzespenari entzungorrena eginenez. Geroztik, lege horren gurasoek zapuztu egin dute, behin eta berriro, beren kumea. Oraintxe bertan horren adibide pare bat izan dugu gure eskualdean:

- Bortzerrietako osasundegira, Lesakan dagoenera,

hain zuzen, bidali dituzten bi medikuak erdaldunak dira bere ondorio guztiekin: alde batetik, gure hizkuntz-eskubideei, "Ley del Vascuence" delako horretan ziurtatzen zaizkigunei - zonalde honetan Euskara ofiziala bait da- uko egiten zaie eta, bertzetik, osasun zerbitzua bezala hartuz, kalitate beherrakada izugarria: Zer nolako zerbitzua ematen ahal die bere gaixoei hauen hizkuntza ezagutzen ez duen batek? Botikak emanez sendagile

batek osabidearen erdia baino ez du egiten; bertze erdia, aholkuak emanez, ez ongi dagoena lasaituz lortzen delarik; nola bete dezake bigarren erdi hau euskaldunekin euskaraz hitzik ere ez dakien medikuak?

- Berako liburutegirako liburuzaina aukeratzeko frogak egiterakoan, Euskara ez da baldintza bezala kontutan hartua izan. Zorionez, lanpostua lortu duena euskalduna izan da; baina, era berean, erdaldun huts batek

lortu zezakeen eta ezin da zortearen eskuetan utzi kultur-gintzan halako garrantzia duen lanpostu bat.

Eta hauek egoera orokorraren bi adibide xume baizik ez dira. Egunero ikusten ari gara gauza bera gertatzen ari dela Nafarroa osoan zehar eta, honen aurrean, ezin gara ixilik edo geldirik geratu. Bihoa gure salaketa aintzinetik baina ez dadila horretan hutsik gelditu.

Bortzerrietako Herri Batasuna



*Zein da Bidasoa - Leitzaran aldean zehien irakurtzen den prentsa?*

*ttipi-ttapa*, noski.

Beraz, zure publizitatea *ttipi-ttapan*.

**Inbertsiorik onena**



**DOMI SAIN DURAKO ESKEINTZA BEREZIA**  
Mota guzietako loreak zentroak, sortak, koroak, e. a.  
Zentroen erakusketak ikus dezakezue hobe aukeratzeko

Eskakizunak garaiz egitea gomendatzen dizuegu  
Aurrekontua eskatu **konpromisorik gabe**

Bittiria karrika, Tfnoa: 62 75 42 - **LESAKA**



▼ **Domi Saindurako:**

- ✿ Lore moztuetan eta landaretan eskeintza handia
- ✿ Zentroak aukeran

Alzate 26, Tfnoa: 63 11 21 - **BERA**



- \* Zure bideo erreportai-ekin, pozik zaude?
- \* Atera nahi diozu etekin haundiagorik zure kamarari?

**Radio Bidasoak ikastaro batzuk egiteko posibilitatea eskeintzen dizu, zure erreportaiak profesionalak bezala egin ahal izateko.**

Orduaz hitzegin dezakegu, oinarriko maila:

**Grabaketa eta montai**

Kantonberri 1  
**BERA ☎ 630377**



## Nafarroa Oinez-93 herrian egitea bultzatuko du Udalak

Modu honetara, Labiaga ikastolaren eskariarekin bat eginez

JOXEMANUEL IRIGOIEN

Datorren urtean 'Nafarroa Oinez' non burutuko den oraindik erabaki gabe baldin badago ere, Labiaga Ikastolak bere kandidatura aurkeztea erabakia du aspaldidanik. Bide horretan, eskari honekin bat egitea eskatu dio Berako Udaltzari idazki baten bitartez eta Udaltzak ahobatez onartu egin du aipatu eskaria.

Bertze gauzen artean, Labiaga ikastolaren idazkian, Ikastetxe berria egiteko Berako Udalak honez gero zentzu horretan eman dituen pausoak gogoratzen ditu "ikastetxea eraikitze-ko orubeen zesioa eta Arau Subsidiarioak egokitzeko tramitazioak hastea" bertzeak bertze. Guzi honeri, "Berako Udalerrriak gisa honetako besta bat antolatzeko duen azpiegitura gehitu beharko litzaizkioke".



Udalak laguntza osoa eskainiko dio Labiaga ikastolari 'Nafarroa Oinez' datorren urtean Beran burutzea erabakitzen bada. Artxiboa

### VIII. Bidasoa Bertso Paper lehiaketaren sariak banatu dira

Joan den larunbatean, urriak 24, ospatu zen Kultur Etxean sari banaketaren ekitaldia. 14 urte artekoetan, lehen saria Berako Eneritz Mitxelenaren 'Ez dago eskubiderik' lanari egokitu zitzaion; 2.a, Berako Gorka Retegiren 'Joxerra mutil eskalearen istorioa' lanarentzat. Mai-

la berean, Ibai Gogorza eta Julen Zelaieta beratarrek eta Ekhine Etxepeteleku lesakarrak aipamen bana jaso zuten. 14-16koe-tan, Xabier Silbeira lesakarraren 'Paisa baten ibilera' rentzat izan zen saria. Helduetan, sariak Mikel Altzuart arizkundarra eta Estitxu Fdez. lesakarrarentzat.

### Enplegu erregulazioa FUNBERAn

Momentuz sei hilabete-tetako iraupena izanen duen enplegu erregulazioa jarri da martxan hilabete honetan Berako «Funbera» lantegian. Momentu honetan 110en bat langile ditu Funberak eta hauetarik erdiak edo, 6 egunez lanik gabe egon dira azken egunotan. Horixe bera gertatuko da hemendik aintziner a hilabetero —aipatutako sei hilabeteak bete arte— alegia. Itxura denez, balles-ten merkatua nabarmenki jautsi egin omen da eta horixe da, hain zuzen ere, Enpresa komitea eta enpresaren zuzendaritzaren artean akordiora ailegatu ondotik, neurri hau hartzera behartu duen arrazoia.

**BORTZIRI**  
ASISTENTZI TEKNIKORAKO ZERBITZUA

\* TB, Bideo, HI-FI eta elektrogailuen konponketa

\* Bakarkako, kolektibo edota satellite bidezko antenak ere paratzen ditugu

Itzea 4, behea - BERA Tfnoa: 63 10 91

GRUPO  ZURICH

ASEGURO OROKORRAK

Itzea, 4 - BERA - Tfnoa.: 63 07 63

**OKANE**

Haragi, janari-izoztu, enbutido, jogurt...

Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 - BERA

LESAKA

# Bi mediku erdaldun ekartzeagatik protesta egin du Udalak

Gogorki salatzen da Osasunbidearen jokabidea gure hizkuntz eskubideen aurka doalako

AITOR AROZENA

Osasun zentrorra bi mediku erdaldun ekarri dituztela eta gogorki salatu du Udalak ahobatez Osasunbidearen jokabidea, gure hizkuntz eskubideen aurka doalako.

HBk aurkeztutako mozioan ahalik eta epe laburrenean mediku euskaldunak bidali ditzala eskatzen zaio Osasunbideari, "mediku euskaldunik ez dagoenaren aitzakia baztertuz; herrian mediku euskaldun bat badagoenez lan finkorik gabe". Azkenik, "gure hizkuntz eskubideak legeztatuak daudela eta horrenbertzez osasungietan medikuak ez ezik, langile guziak euskaldunak nahi ditugula" oroiarazten zaio Osasunbideari. Mozioaren ustez, "Osasunbideak guri irri egiteaz gain «Ley del vascence» berari egiten dio".



Beti Gazte elkarteak antolatutako II. Argazki lehiaketan parte hartzen duten lanekin erakusketa burutuko da Azaroaren 23tik 29ra.

ARTIBOIA

## «San Fermin» Jubilatu elkartearen eguna azaroaren 1ean burutuko da

Igande honetan ospatuko dute «San Fermin» jubilatutako elkarteak beraien eguna.

Goizeko 11,30etan Lesakako Abesbatzak kantatutako meza izanen dute elkarteko hildakoen omenez. Eguerdiko 2etan anaitasunezko bazkaria Kasino jatetxean egingen

dute elkarteko bazkideek. Ondoren, Garmendia, Azpillaga, Lazkao-txiki eta Arozena bertsolariak arituko dira. Azkenik, Beti Jai orkestarekin dantzaldia izanen da. Bazkarirako txartelak Marixus elektrogailu dendan eros daitezke 2.000 pezetan truk, hilaren 29a baino lehen.

## W ttipi-flash

□ **Malerreka-Bidasoa** inguruan ETBko bi kateak hobe ikusteko neurriak har ditzala eskatu zaio erakunde horri.

□ **50.000** pezetako dirulaguntza eman dio Udalak «Burdinaren martxa»-ri.

□ **Alkaiagako** industrialdearen aurka bertako bizilagunek presentatutako alegazioekin ez zuen bat egin Udalak.

□ **II. Argazki** Lehiaketa antolatu du Beti Gazte elkarteak. Argazkiak zuri-beltzean edo kolorez izan daitezke, edozein tamainakoa, baina 30x40 zmtako kartulina baten gainean joan beharko du. Gaia libre bada ere, kirol argazkirik hoberenak sari berezia izanen du. Lanak aurkezteko epea azaroaren 15ean bukatuko da, helbide honetan: Beti Gazte, Beheko Plaza 9, 31770 Lesaka.

**EROSLE**  
LESAKA

Kalitate-prezio arteko orekarik hoberena

**Frexkuena**  
zugandik  
hurbilago

Bittiria 67 - Tfnoa: 637264

**XATURETXEA**  
FONDA

Tfnoa.: 63 70 27 LESAKA

**IRUBIDE**

**OSTATUA**  
ERRETEGIA

Tfnoa.: 63 71 27 LESAKA

**ONIN**  
Agentzia

Albistur 53  
Tfnoa: 637359  
LESAKA

- Aseguruak eta kontabilitatea
- Errenta eta IVA deklarazioak
- Eskrituren likidazioa
- Edozein aferetarako ofizina
- Zunzarren-en kolaboratzaileak

**ARRANO**



**OSTATUA**

Legarrea - LESAKA

## Urriko Kultur ekintzak eta bestak ongi joan dira

Larunbat arratseko rock kontzertuak izugarritzko jendetza ekarri zuen

PELLO APEZETXEA

Hamaikan Goizuetako Umore Ona dantzari taldearen saioa, eta bideo emanaldia arratsaldean; dantzari arroparen erakusketa 18an politak eta ikusiak izan ziren. Zer erranik ez, haundiena 17aren arratseko rock kontzertuak bildutako jendetza izan zen, aintzineko urtekoaren halako bitaraino ailegatuz. Eguraldi ona suertatzeak aunitz lagundu zuen, noski, larunbat eta igande hori azkenaldiko egun on soilak gertatu direlarik. Dena den, azken urteetan arratseko jendetza haunditu eta arratsaldekoa ttikitu egin dela dirudi.



Hötza goiz dabil äurten, eta bazka gordetzen ari da. Segalariak aurtengo lan haundienak eginak ditu, noski.

Argazkia: PELLO

### Larraburuan podologoa

“Larraburua” elkarteak sozioek badute, joan den ortzegunetik hasita, zangoetako problema batzuei konpontzeko edo arintze-

ko bidea. Egun horretan hasi zen podologoaren serbitzua, Larraburura bertara etortzen dena, eta merkeago gainera, zati bat elkarteak ordaintzen duenez. Behar den tresneria ere

Elkarteak erosi du, Nafar Gobernuak emandako laguntzari esker

### Ia 200 milioi hiru urtetako obratan

Udalak, ondoko 3 urtetan herrian egitea pentsatu duen lan zerrenda Nafarroako Gobernuari jakinerazi dio. Lehenbiziko obra baserritarako bideak breaztatzea da, 120 milioi kostako dena; karrika bazterrak moldatzea, 22,3 milioi pezeta; iturri berriak hartzea, 16 milioi térdi; Herrikoetxeko ostatu eta jatetxea moldatzea, 11 milioi; Herrikoetxe zaharra konpontzea, 20.400.000 pzta; eta azkenik, herrikoetxeko bulegoetan kalefakzioa paratzea.

**BEKO ERROTAK**  
Lore eta landareak  
Frain auzoa Tfnoa: 63 78 26  
LESAKA

*Deñe*  
LENTZERIA  
MERTZERIA  
Tfnoa.: 62 75 14  
Beheko Plaza 8, LESAKA

ZONALDE HONETAKO 5 ETXETIK 4tan  
ttipi-ttapa HARTZEN DUTE  
ZURE KLIENTEEK ERE ttipi-ttapa HARTZEN DUTE

**KOXXKONTA**  
**Sagardotegia Erretegia**  
Ezkontza,  
bataio, bileratarako leku egokia  
(200 pertsona)  
Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 - LESAKA

**KATTU**  
OSTATUA  
JATETXEA  
- Karta  
- Eguneko menua  
Matxinbeltzenea, Tfnoa: 62 75 73 LESAKA

IGANTZI

«Garro» etxeke zati bat lurrera erori da

Zorionez ez zuen inork minik hartu

OSKAR TXOPERENA

Joan den ortzegunean ezbehar galanta gertatu zen herrian. «Garro» etxeke zati haundi bat lurrera etorri zen. Aspalditik arrail haundiak zituen agerian eta alde batean zorroa ere ateratzen ari zitzaion. Hala ere inork ez zuen espero horrelakorik gertatzea. Berri hau irakurtzen duzuenarako guzia lurrean egonen da seguraski, hala agindu baitzuen alkateak arriskuarengatik. Zorionez ez zuen inork minik hartu, 5 minutu lehenago barruan jenderik baldin bazegoen ere. Gure lankide den Kar-



*Etxeak arrail haundi bat agerian zuen aspalditoxik eta alde batean zorroa ateratzen ari zitzaion* KARMELE

melek ere eskapada dexentea egin zuen, kotxez pasatzen ari bait zen momentu horretan etxearen ondotik



*Xorroxin irratian ederki aritu dira herriko neska-mutikoak* OSKAR

Irrati saioak eskolan

Irrati saio politikak izan ditugu Igantzin Xorroxin irratiaaren eskutik.

Eskolako haurrek hartu dute parte, batzuk bertzeak baino kementsuago ohi denez. Aurkezle gisa Izaskun

Mendibilekoa aritu zen, bikain aritu gainera, etorkizun polita daukala irradi munduan erakutsiz. Lastima ez digutela lehenago jakinerazi jende gehiagok entzun ahal izanen zuen eta.

**SAROB**  
okindegia



**SANDERS** Pentsuak  
Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

ZURE BIDAIAK, ZEURE NEURRIAN ANTOLATUTAKOAK



**ERRO**  
**BIDAIAK**

BIDAI  
AGENTZIA  
G.A.T. 2.015

✕ HERRIAK  
✕ MENDIAK  
✕ TURISMOA  
✕ TREKING eta  
BIDAI ALTERNATIBOAK

ADUANNA KALEA, 5  
☎ 943 - 615177  
☎ 943 - 619489  
FAX 943 - 619517  
20.300 IRUIN

**MANOLO**  
**TABERNA**

Edari Banatzailea

Errefreskoak, Ura,  
Ardoak, Likorrak,  
Txanpaina

Tfnoa: 63 10 27 - BERA



## Itxura denez, azkenean, mediku euskalduna izanen dugu

Osasunbideko agintariak hitza jaten ez badute behintzat

MIRARI AMAIA eta MARTA

Azkenean eta gestio franko egin ondoren, mediku euskalduna izanen dugu. Osasunbidean erran digutenez, datorren urtean lehendabiziko hiru hilabeteen barrenean gauzatuko da.

### Ibilaldiari laguntza

Udalak AHVko "Burdinaren Ibilaldiari" 10.000 pztako dirulaguntza eman dio.

### Berriozarren kanporaketa

Herri Kirol taldea sub-20 eta emakumeek, Berriozarren izanen dute kanporaketa Azaroaren leian. Nerbioak ugaritzen direla ezin dezakegu erran,



ARTXIBOA

ez baita hala. Lasaitasuna dugu nagusi, ez du horrek klasifikatuko diren ziurtasunarekin daudenik erran nahi, ordea. Dena den, animo eta ea jendea hurbiltzen den animatzera. Hurrengo astean klasifikatuko

diren taldeek finala izanen dute Elizondon. Eta bukaera ona emateko afarria parte hartzen duten guztientzat.

### Ehiztariak keju

Ehizaren mugimendua nabari dugu dagoeneko.

Usoak, ordea, ehizatuak behinpein ez dira batzuk nahi bezain bertze. Eguraldi txarra... usoak altuegi... hainbat kexa ehiztarien ahoetan. Halere, urria ez da oraindik bukatu. Jakin behar zer gertatuko den.

## ZALAIN JATETXEA

Eguneko menua eta karta

Boda eta banketeak ematen dira


Zalain auzoa, Tfnoa: 63 11 06 **BERA**



## ATERPE jatetxea

Tfnoa.: 63 41 79  
ARANTZA

## GOZOTEGI - JARDONE




Itzea 3, 630786 - BERA



Ezkontzetako erreportaiak argazkiak eta bideoa

Tfnoa.: 58 01 55 - Santiago 40  
ELIZONDO



**ERAKUSKETA:**  
BEREAU ETXEA  
LESACA NAFARROA  
Telf: (948) 637266

## LAINO

**AZAROAN**  
%20KO DESKUINTOAK

San Esteban 37, Tf: 631063 - BERA

Eta orain, zure koloretako argazkiak **ORDU BATEZ ERREBELATUAK** ditugu

## BORTZIRI

«UNSION ANAIK»

**SUKALDERAKO ALTZARIAK**

SARA

## Euskara ikasgaiak eskainiko ditu IKAk Gazteen Etxean


Añimaineko bestak, bertzalde, aspaldiko partez ospatu ziren

OLHAIN ELKARTEA

Aurten ere, alfabetatu nahi duten guzientzat euskarazko ikasgaiak eskainiko dira Saran Gazteen etxean IKA erakundearen gerizapean. Ordutegia hauxe dugu: astelehenetan 8ak eta 9,30ak artean eta ortzegunetan 8ak eta 10,30ak artean. Oraindik ere izena eman daiteke.

### Añimaineko bestak

Aspaldi partez, aurten Gaztetxeak eta Akelarre ostatuak antolatu dituzte auzo hortako bestak. Duela 20 urte oraino Sarako besta igandean Añimainean egiten zen Ahate jokoak, hau zela ekitaldi nagusia. Hala beraz gazteek, Jean Louis Oronoz Akela-



ARTIXBOA

rre ostatuko nagusiaren laguntzarekin besta horiek nolazpait berpiztu dituzte: erran gabe doa ohidurak nahi duen bezala Ahate Jokoa ospatu dela baita ere dantza ikusgarri Zazpiak Bat taldearekin eta indar jokoak zaharrak eta gazteen artean.

Denak trikitixa eta akordeoiak sustengaturik.

Aroa lagun, besta giro herriko batean iragan da eta jende askok parte hartu du. Arratsean 150 bat jende biltzen zen ahatze jatearen karietarat. Ondotik entzun ditugu Gérard Ihidoz

eta Daniel Xalbador bi nartar kantariak. Gauaz, Ttote Mitxelena eta Philippe Garatek alaitu daukute dantzaldia.

### Berri triste bat

Urriaren 15ean, Inaxi Arrieta Trinketeko etxeko anderea gaitz gogor baten ondorioz itzali zaiku. Sarako elizak bakan ikusi luke hainbertze jende bildurik, Inaxiri azken agurraren eskaintzeko elgarretaratu diren bezala. Doluminak eskaintzen ditugu Jean bere senarrari eta seme-alabei.

☐ **Akelarre** ostatuko mus lehiaketa azaroaren 13an hasten da. Ortzirale arrats guziz iraganen da eta izen emaitzearen azken epea azaroaren 8a da.

Juan Meoki naiz:

Balín baduzue trasteak etxe barrenean edo ate ondoan eta buruko mine maten baduzue hek ikusteak, abiso emanazue Iruritako telefono hontara

45 20 35

eta kendiko dut gusto ederrean eta ezautzen garelaik seguro nago, zuek eta ni izain garela betiko lagun ederrak.

Zuek hor zate, ni hemen nago. Zuen deia esperuan nago. Biher baino neretako gaur hobiago.

## HERRIKO ETXKO EDANTEGIA

*Michel eta Kattin  
Guendain*

Tfnoa: 59 24 25 19  
64310 SARA



## TXOKO erretegia

**Bazkari, afari eta gosariak**

ITUREN - Tfnoa: 45 04 91



**ARROPA ETA OPARIDENDA**

Tfnoa: 45 1540

Mercaderes 9

DONEZTEBE

## Ehizturiak keju usorik pasatzen ez dela eta

Halere, etxoletan badute denbora ederki pasatzeko aukera

IOSUNE eta IXABEL

Herriko ehizturiak nahiko haserretuak dabilta denboragatik eta uso gutti pasatzen direlako, baina badago esaera bat honako hau erraten duena: "Ez dago gauz txarrik ontako ez denik" eta ehizturiak franko ongi hartzen dute: leku bakoitzean etxola badute eta nahiz eta ehizirik ez izan, etxolan sartu, ongi gosaldtu eta behar bada ondoren kuluxka bat egin dezakete.



**Estamoa eta Arrutela** baserritarako bideak egoera onean uztea eskatuko zaio Nafarroako gobernari. Bariantearen obrak sortutako aldatetak direla eta egoera kaxkarrean daude bi baserritarako bideak.

□ **Elizaldea** etxean osatua irekitzeko baimena eman zaio Luis Fernando Iribarreneri.

□ **30.000** pezetako dirulaguntza eman dio Udalak LLko Langile Batzordeari Madrilerako martxa

dela eta. Sunbildar aunitz ari dira Lesakan lanean eta zalantza haundiak daude etorkizunari begira.

## DONAMARIA

## Herriko Ostatuaren sukaldea moldatzea erabaki du Udalak

Lau hilabeteren barne lanak akautuak egon beharko dute

DONAMARIA

Duela urte batzuk Herriko Etxeko sarrerak, eskalera, komunak, ostatua eta bertze zenbait gauza moldatuak izan baziren ere, sukaldea moldatu gabe gelditu zen orduan.

Oraingoan berriz, "ikusirik sukaldearen zola eta sukaldea bere osotasunean egoera txarrean daudela", oso-osorik moldatzeko akordioa hartu berri du udalbatzak. Horretarako, inguruko zenbait igeltserori aurrekontu edo



Herriko Ostatuaren sukaldea berrituko da negu honetan

presupuestoak eskatu zaizkie, eta udalbatzaren akordioan zehazten denez,

"lanak egiteko lau hilabeterako epea zabaltzen da, eta behin obrak hasi dire-

nean, hilabete baten barnean lanak arront akituak egon beharko dute".

DONEZTEBE

Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

Eguberritarako martxan egonen da seguruenik

TXEMA ALDABE

Malerrekako hamabortz herriak Zerbitzu Mankomunitate baten bitartez antolatuko dira heldu den urtetik aintzinerara.


Halaxe ematen du behintzat, Mankomunitatearen estatutuak herriz herri behin betikoz onartzen hasiak direla ikusita. Dagoeneko eta guk dugun informazioaren arabera, Beintza-Labaien, Oitz eta Urrotzko udalbatzek onartua dute dagoeneko.

Zuzendaritza karguak

Estatutuen onarpenarekin batera eta Mankomunitatearen Batzordean parte hartu ahal izateko, herri bakoitzak bere ordezkariak izendatu beharko ditu. Hauen kopurua, berriz, ezberdina izanen da herriak dituen biztanle kopuruaren arabera. Doneztebeko kasuan, Miguel San Miguel, Tomas Ezkurra eta Antonio Artazcoz dira horretarako hautatutakoak.

Dena dela eta behin Udalerri guzietan estatutuak onartuak dituztenean, Batzarre Orokorra ospatuko da -azaroan seguruenik- eta bertan, lehen agintaldian Mankomunitatearen Zuzendaritza kargu ezberdinak -lehendakari, lehendakariorde, diruzain, idaz-

Doneztebeko alkatea den Miguel San Miguel da momentu honetan eta behin behineko Mankomunitatearen lehendakaria.



Mankomunitatearen Egoitza non finkatuko den ez da ezagutzen oraindik.

kari, bokalak...- beteko dituztenak aukeratu behar-

ko dira. Pausu honekin, jada zortzi urte martxan

ttipi-flash

□ **Hirugarren** Adinarendako Egoitza Sozialaren obrak eman dira dagoeneko. Obraren kostoa 14.776.388 pezetatikoa izanen da eta 'Jubera Azpiroz eraikuntzak' egingen du. Hiru hilabete izanen ditu enpresa honek obrak bukatzeko.

□ **Zinea** martxan egonen da urriaren 31an. Astebururo eta besta egunetan zinema emanaldiak izanen dira maiatza arte. Lehen tituluak 'celebre' xamarrik: 'Arma Letal 3' eta 'Alto o mi madre dispara'. Orduetgia larunbatetan gaueko 10,30etan eta igandetan, bi emanaldi, arratsaldeko 5etan eta 8etan.

□ **San Miguel** auzoko basilizan dagoen gurutzea lurrera bota dute. Zenbaitzuren haserrea nabaria da, pare bat aste bait darama lurrean.

□ **Malerrekako** Euskaltegian hirurogeitamarren bat ikasle matrikulatu dira aurtengoan maila ezberdinetan. Hauetarik gehienak Malerrekako herrietakoak baldin badira ere, bertze urtetan bezala, badaude zenbait Baztandik datozenak.

dabilen asmoa gauzatzen hasi da Malerrekako.



# ELIZONDOKO FERIAK

Urriak 30 eta 31



## SAN LUCAS ONDOKO ORTZIRAL ETA LARUNBATEAN

*Udazkenaren erdian, udako beroak pasatu eta eguraldiak bozten hasi duenean, feriak datozki-gu Elizondo, Doneztebe eta Lesakan.*

*San Lucas pasatu eta ondoko ortzirala eta larunbatean Elizondon, San Martin pasatu eta burrungo ortziraletan Donezteben eta normaletan azaroaren azken asteazken eta ortzegunean Lesakan.*

Argazkiak: J.M. ONDICOL

Ferietan ere zure zerbitzura • Ferietan ere zure zerbitzura • Ferietan ere zure zerbitzura • Ferietan ere zure zerbitzura • Ferietan ere zure zerbitzura

## NAFARPRESS

PRENTSA eta LIBURUDENDA

Jaime Urrutia 41-43 • ☎ 581 055 • ELIZONDO

*Liburua kultura da, eskermile leitzeagatik*

*Oparirik onena, liburu bat*

B. ALMANDOZ  
OINETAKOAK



Oinetakoen salmenta  
eta konponketa

Santiago karrika47  
ELIZONDO

Oinetakoen  
konponketa  
garantizatua!



## VIRGILIO

### Oinetakoak

1922 fundatutako etxea  
Santiago, 32  
Tfnok.: 58 02 02 - 58 02 79  
ELIZONDO



Elizondon, XIX. mendean asteazkenetik hasten zen mugimendua eta ortzegunetik larunbatara ospatzen zuten feria.

Larunbatari "atsoferie" deitzen zioten. Egun borretan etxeoandreek negu guzirako probisioak (mantak, arropak, baratxuriak...) erosten bait zituzten.

ONDICOL

Ongi pasa ferietan • Ongi pasa ferietan • Ongi pasa ferietan • Ongi pasa ferietan • Ongi pasa ferietan • Ongi pasa ferietan • Ongi pasa ferietan

# Jirigoien Agentzia

- KONTABILITATEAK
- ERRENTA DEKLARAZIOAK
- NOMINAK
- ASEGURU SOZIALAK
- LAN KONTRATUAK
- ENPRESA BERRIEN SORTZEA
- ERA GUZIETAKO SEGURUAK

Saskaitz Plaza, Behea  
Telefonoa-Faxa: 452048 • ELIZONDO

## Atendi Brikolaje Arte Dekorazioa



Santiago 46  
Tfnoa: 452093  
31700 ELIZONDO

TIBURCIO GOYENECH EECHEVERE

# ANZABAL AGENTZIA

GESTORIA - ZURICH ASEGURUOK - INMOBILIARIA

SANTIAGO KARRIKA 15 BEHEA ... Tfnoa: (948) 580804 • ELIZONDO



Ongi pasa ferietan • Ongi pasa ferietan • Ongi pasa ferietan • Ongi pasa ferietan • Ongi pasa ferietan • Ongi pasa ferietan • Ongi pasa ferietan

## **“EL PRADO DE PAULARENA” ETXEGINTZA**

*Pisuak, apartamentuak,  
lokale komertzialak,  
familia bakarreko  
etxebizitzen promozioa eta  
eraikuntza.*




### **Informazio eta salmenta:**

Construcciones J. B. Iturria S. L.  
Mendinueta Ibilbidea 6 - behea  
Tfnoa: 580304 • ELIZONDO









Ostatuak • Jatetxeak • Ostatuak • Jatetxeak • Ostatuak • Jatetxeak • Ostatuak • Jatetxeak • Ostatuak • Jatetxeak • Ostatuak • Jatetxeak

### TXOKOTO

Ostatu • Jatetxea

**Pintxoetan espezialitatea**

Braulio Iriarte 25, ELIZONDO

### SANTXOTENA JATETXEA

Pedro Axular, Tfnoa: 58 02 97 - ELIZONDO

**Fortenea**  
OSTATU-JATETXEA

Baztango gauetako  
martxarrik jatorrena

Santiago karrika  
ELIZONDO

### BAZTAN

**OSTATU - JATETXEA**

BAZTANGO JAKI TIPIKOAK

- Baratzuri zopa onddoekin
- Txuritabeltz

Santiago 36 - Tfnoa: 580113 - ELIZONDO

### LABAIEN OSTATUA

Bokadilloak,  
pintxoak eta  
plater konbinatuak  
ematen dira

Santiago 47-Tfnoa: 580338  
ELIZONDO





ONDICOL

Ferietan ere zure zerbitzura • Ferietan ere zure zerbitzura • Ferietan ere zure zerbitzura • Ferietan ere zure zerbitzura • Ferietan ere zure zerbitzura



**Materiale  
elektrikoaren  
salmenta**


Jaime Urrutia 8  
☎ 580892 / 581261  
**ELIZONDO**

# IRIBERRI

## TINTORERIA

**GARBIKETAK IDORREAN  
ALFONBRAK, TAPIZAK  
ARROPAK...**

Jaime Urrutia 4 • ☎ 580356 • **ELIZONDO**



- ALUMINIO AROZTEGIA
- BURDIN AROZTEGIA
- TOLDOEN INSTALAZIOA

Santiago 71, ☎ 580166  
**ELIZONDO**



# CAJA RURAL

*Eremu berriak irabaziz*

Jaime Urrutia z/g • ☎ 580729 • **ELIZONDO**

# Ma Carmen

ARROPA KONFEKZIOAK


*Haur eta helduentzako arropetan  
espezializatuak*

Braulio Iriarte 22 • **ELIZONDO**



# ELIZONDOKO FERIAK

Urriak 30 eta 31



Azienden le-  
biaketa da,  
gebien bat,  
baserritarrak  
etxeko abereak  
herrira ekartzera  
animatzen  
duena, eskuz  
esku eginiko  
elkartrukeak  
eskasak baitira,  
batez ere Donez-  
tebe eta Lesakan.  
Elizondon orain-  
dik, zenbait tratu  
egiten dira,  
nahiz eta poliki  
poliki obitura  
hau galtzen joan.

ONDICOL

Ferietan ere zure zerbitzura • Ferietan ere zure zerbitzura • Ferietan ere zure zerbitzura • Ferietan ere zure zerbitzura • Ferietan ere zure zerbitzura


## SEAT

# Datucelay

## INSTALAZIO BERRIAK

Baztan - Malerreka - Bortzirietarako SEAT ZERBITZU OFIZIALA

☛ *Direkzio zuzenketa ordenadore bitartez*







Ferietan ere zure zerbitzura • Ferietan ere zure zerbitzura • Ferietan ere zure zerbitzura • Ferietan ere zure zerbitzura • Ferietan ere zure zerbitzura



**JUAN LARREGI**  
NEKAZAL TRESNERIA

# NEGUKO

# PROMOZIOA

Santiago karrika 10 • Tfnoa: 580898 • ELIZONDO

### STIHL motozerrak

#### ESKAINZA BAKARRA

Motozerrarekin batera erreminta  
xakutoa **debalde**



STIHL 023 41.600Pzta.\*

STIHL 034 71.200Pzta.\*

STIHL 044 92.800Pzta.\*

\* IVA barne

### Husqvarna motozerrak

MOD 36



Orain  
**40.720 Pzta**  
IVA barne

MOD 45



Orain  
**49.419 Pzta**  
IVA barne

Makina Zaharragatik 23.062 ordaintzen dizugu

MOD 55



Orain  
**59.957 Pzta**  
IVA barne

Makina Zaharragatik 41.235 ordaintzen dizugu

MOD 266xp



Orain  
**79.987 Pzta**  
IVA barne

Makina Zaharragatik 39.628 ordaintzen dizugu

MOD 281xp



Orain  
**92.505 Pzta**  
IVA barne

# ELIZONDOKO FERIAK

Urriak 30 eta 31

Abereak ikuste-  
ko aukerak,  
karriketan  
barrena dau-  
den dendatxoak  
eta jendetza  
ugariak, ukitu  
berezia ematen  
diote Elizondo-  
ko feriei. Postue-  
tan denetik  
aurki daiteke;  
aizkorak,  
baratzuriak,  
goxokiak, mila  
pezeten truk  
turroi sorta beti  
"ezin hobea",  
etab...

Feriak dira,  
merkatu eguna,  
dudarik gabe  
besta berezi bat  
Baztango  
egutegian.



ONDICOL

Urte osoan zure zerbitzura gaude • Urte osoan zure zerbitzura gaude • Urte osoan zure zerbitzura gaude • Urte osoan zure zerbitzura gaude •

## IZETA ANAIAK

ERLOJU ETA BITXI DENDA

Jaime Urrutia 17 • ☎580755 • ELIZONDO

## Retegi

## Goxotegia

EGUNERO PASTELAK, PASTAK ETA TARTAK • ENKARGOAK

Santiago 43 • ELIZONDO



## Talleres BAZTAN

**FIAT** Zerbitzua

Mekanika eta elektrizitatea

Santiago 63, Tfnoa: 58 03 02 - ELIZONDO

## Bucles Ileapaindegia

Santiago 58-C Behea • ☎581025 • ELIZONDO

## BAZTAN AROZTEGIA

Pintura • Aroztegiko gauzak  
Kristalak • Tresneria • Opariak

Jaime Urrutia 20 - Tfnoa: 580423 - ELIZONDO



*Negozio borobila egiten dutenak, taberna eta jatetxeak dira. Baztanen, adibidez, obitura zabarra da ortzira-lean jatetxetan bazkaltzearena, gerra aintzinetik ere Ariztia jatetxea, Hotel Lazaro edo Patxikuenea bete beteak egoten bait ziren.*

ONDICOL

Urte osoan zure zerbitzura gaude • Urte osoan zure zerbitzura gaude • Urte osoan zure zerbitzura gaude • Urte osoan zure zerbitzura gaude •



ERLOJU eta BITXI DENDA

### ARRIETA

KIROL TROFEOAK

☎ 580 445 - ELIZONDO



# ELIZALDE

## ESTANKOA

Jaime Urrutia - Tfnoa: 58 02 46 - ELIZONDO

# LEIZA

## Elektrogailuak MASTER KATEA

PHILIPS THOMSON ITT SONY PANASONIC SELECO  
SHARP SANYO ELBE TECHNICS BLAUPUNT FAGOR  
ZANUSSI ZANELA BOSCH BALAY INDESIT AEG  
OLIVETTI MOULINEX


Santiago 27 • Tfnoa: 58 03 51 • ELIZONDO

Sukalde  
mobleak  
montatzen  
ditugu

Eskatu aurrekontua  
konpromisorik gabe







ONDICOL

Urte osoan zure zerbitzura gaude • Urte osoan zure zerbitzura gaude • Urte osoan zure zerbitzura gaude • Urte osoan zure zerbitzura gaude •

## Almaco Baztan, S.A.



Eraikuntza eta saneamendu materialeak

Errepide Nagusia, Tfnoa.: 58 01 04 - ELIZONDO

## ELKAR

**AUTO ESKOLA**

Tfnoa: 580077 ELIZONDO

Tfnoa: 637870 LESAKA

## SANSIÑENA GARAGEA

### AGRIA

ZERBITZU OFIZIALA

- Agria eta Dehutz Farh traktoreak
- Erabilitako nekazal tresneria



CITRÖEN  
ZERBITZU  
OFIZIALA

- Mekanika tailerra
- Kotxe konponketa
- Bigarren eskuko kotxeak

Tfnoa: 580 406 - ELIZONDO

**SEGUROS  
BILBAO**

Karrika Nagusia 22

Tfnoa: 451610 DONEZTEBE

**GARANTIA OSOKO  
ASEGUROAK**



## 109 milioi hurrengo Hirurteko Planean

Iturengo bideak moldatzen 52 milioi t'erdi gastatu nahi dira

IBAN ISASI

Azkeneko alean Azpiegituren Hirurteko planari buruz agertzen zen informazioa jarraituz oraingoan lanak eta aurrekontuak agertuko ditugu:

Plaza eta ondoko karririk berritzea, 15 milioi; ur kaptazio berria Aurtitzera, 6'5 milioi; argia elizaraino 1'3 milioi; tentsio handiko instalazioaren hobekuntza, 3.150.000 pezeta, zubi eta karrika berriaren



hobetzea, 8'3 milioi; Ameztiarako bidea 3'5 milioi eta

Ameztiaren kunetaren hobetzea, 6'6 milioi.

Iturengo bideen moldaketari dagokionez, Ameztiko baserrietarako bideen moldaketa, Iturendik Elizara, Palaziokobordara, Mitxelteneara eta Aurtiztik karreterarako bidearen hobetzea egiteko asmoa dago, guztira 52.510.000 pezetaren gastuarekin.

Azkenik, ur eta saneamendua sareen banaketa egiteko asmoa azaldu dio Udalak Nafarroako Gobernuari, honek 12.600.000 pezetako gastua duelarik.

## ZUBIETA

## Sukaldaritza eta zurgintza klaseak hasiak dira

Afro-dantzarena ere, hasteko prest

JUAINAS

Aurreko alean aipatzen genituen hainbeste ikastaroen tartean dagoeneko bi gauzatu dira: sukaldaritza eta makramekoa. Zurgintzarena bidean da eta nekazaritza biologikoari dagokionez momentuz atzeratu baldin bada ere ez dugu baztertzeko asmorik. Bitartean, eta denbora pasa, **afrodantza** ikasteko gogoz direnak agertu bait dira eta irakasle aproposa lortu bait dute. Beheko eskolaneginen dira saioak, urriaren azkenengo asteburuetan. Batere gaizki ez dago horrelako

herri txiki batentzat.

Eta batzuk dantza berriak ikasten ari direla bertzik gehien maite duten horretara jotzen dute, **ehizira**. Gero eta ehizturi gehiago bait daude. Esaten dutenez, lehen, Zubietan, eskopeta zuten etxeak hagitzen ziren, gauregun berriz, ez dutenak salbuespentzat hartu daitezke. Bost ajola euria, behe lainoa, guardia zibilak edo tokatzen direnak tokatuz. Argistian pistetik gorantz motor soinuak ugaritzen dira. Eredua bihurtu da, noski, eta gaztetxoek «*zer ikusi, hura ikasi*» erre fraua bete nahirik balinezkoekin



hedatzen dira alkate jaunaren haserretarako. Hasarrea ez ehizian ikasten dutelako, bera ere ehizturi bait da, hondatzen dituzten gau-

zengaitik baizik. Hori dela eta debeku bandua kaleratu da balinezko eskopetak herri kaskotik kanpo debekatu. Txoriendako bakea?

LEITZA

## Harrobiari ezetz esan diote Diputaziotik

Zinea, azaroaren 13an martxan berriz ere

ANTTON ERKIZIA

✓ “Kordau” inguruan, karaitz harria atera asmatan, bi harrobi proiektu haundi zeuden. Lehenengoari, “Aridos de Navarra SAK” aurkeztutakoari, ezetza eman diote Diputaziotik. Bigarrena, Azpiroz-Saralegik eskatzen duena da, eta honi dokumentazio gehio eskatu diote, oraingoz.

✓ “Ansolitz” du izena, udaletxeak berak atera duen aldizkari berriak. Helburua: udalak egiten duen eta egin asmo duenaren informazioa ematea eta etxez etxe zabaltzea.

✓ Aste honetan aukeratu dute, elbarritu sikikoe-kin ariko den arduradun-monitorea. Zortzi dira beren izenak eman dituztenak, lan hortarako.

✓ “Aurrera” elkartea diruz egoera larrian dago. Egoitza edo lokala berria egiteak diru asko eraman du

(hogei milioi), eta bankuak gauzak franko estu jarri omen dizkio. Udalak lagunduko al dio, hainbeste lan herriarentzat egiten duen elkarte honi eutsi nahi bazaito.

✓ Ostirala eta igandetan zinea ematearena oso esperientzi positiboa izan zen lehengoan, eta berriz ere martxan ezartzekotan dabilta. Azaroaren 13an dira hastekoak.

✓ Leitzar arbitro bat ziztu bizian ari da kategoriatan igotzen; Mikel J. Iturrarte, Errekaldekoa. Hiru urte ar-



bitro hasi zela, eta urtetik urtera maila bat gorago ezarri dute. Aurten “preferentent”.

Eta herriko beste jokalaria batzuk ere nahiko kategori ona hartu dute gero! Bigarren dibisioan ari direnak: Aitor Astibia (Hernanin), Txoma Barriola (Lizarran) eta Peru (Hernaniko entrenadorea). Angel Irujo, hiru-garrenean, Txantrearekin. Animo, gazteak!

✓ 33 gizon-emakume euskara ikasten eta hobetzen, IKAk Leitza antolatzen dituen ikastaroetan.

✓ Eta EPA ikastaroetan hasi direnak. Hortaz aparte, laister yoga irakasten hasiko dira Aurreran. Eta gainera, Geldirik egon eta deus ez dago.

## Adio, jaun-andreok erreleboa eskatzen dut

Haize berria behar dugu, hemen ere, haize freskoa. Erreleboa komeni da.

Bi urte t'erdi egin ditut Leitza berriak ematen, nahiz eta inoiz denen gustora egiterik ez dagoen. Baina hori banekien hasi aurretik.


Leitza 560 familian banatzen da *tipi-ttapa*, gaur. Askok da. Punta-puntan jarri dugu.

Orain, haize berria sar dadin, beste kontalari batzuk etor ditezten honara, gauza berriak kontatu dituzten, beste angulo batetik akaso, beste modu batera.

Komeni da.

Emandako hitza bete dudalakoan, eskerrikasko irakurle guztiei, eta ADIO, jaun-andreok. Ongi izan, Leitza.

Antton



## Herrian ospatuko du aurten Argia aldizkariak bere eguna

Larunbatean Ortzi folk taldea eta Txomin Artola eta Amaia Zubiriaren kantaldia izanen da

ESTEBAN AROZENA

Jakina den bezala, Argia astekariak urtero Euskalerriko herri bat aukeratzen du bere eguna ospatzeko eta dagoeneko esan dezakegu aurtengoan Goizuetak izango duela ohore hori, azaroaren 14 eta 15erako mota desberdineko ekintzak prestatu direlarik.

Kantaldiak, pilota partiduak, herri kirolak eta bertsolariak osatzen dute gehien bat Argiaren egun honen egitaraua. Larunbatetik hasita, gaueko 10,30etatik aurrera Ortzi folk taldeak eta Txomin Artola eta Amaia Zubiria bikote ezagunak eskeiniko duten kantaldia izango da programatutako lehen ekitaldia.



Argia eguna dela eta ekitaldiak antolatu dira azaroaren 14 eta 15ean

Igandean, eguerdiko 12etan jubenil eta afizionatu mailen bi pilota partidu jokatu dira, biak goizuetar eta oiartzuarren artean. Lehenengoan, Olaizola-Berroeta beste bikote baten aurka neurtuko dira. Ondo-

ren eta estelar moduan Apezetxea II eta Apezetxea I, Azpiroz eta Esnaolaren kontra.

Arratsaldeko 5etan Karrera, Ergoien eta Goizuetako taldeek herri kirol jaialdi ikusgarria eskeiniko dute.

Eta 7etan bertso saioa punta puntako ondorengo sei bertsolari hauekin: Mikel Mendizabal, Jose Luis Gorrotxategi, Joxe Agirre, Estitxu Arozena, Bittor Elizagoien eta Xabier Euskitze. Gai-jartzaile lana Manolo Arozenak beteko du. Gai honekin bukatzeko esan, Udalaren eta Umore Ona elkartearen laguntza jasoko duela Argia egun honek.

□ **Urriaren 18an** ospatu zen Zaharren egunean ohizko museko eta trukeko txapelketak jokatu ziren, irabazleak ondorengo hauek izan zirelarik: musean, Txarpako Xilbino eta Alejandro Larrea. Trukean, Pauleneko Maritxo eta Loidineko Carmen.

## ARESO

## Kalteak sortu dute etxe zaharretan autobioako eztrandek

JUANA MARI SAIZAR

Autobiak zeharkatzen du herria alde batetik bestera. Aresoko mendiak harkaitz asko dutenez, apurtzeko ez-tanda asko behar. Eztanda hauek herriko etxe zaharretan sarrail ugari sortu dituzte eta baita ere elizako dorrean. Aspaldian hautsita eta geldirik dago herriko erlojua, tximista zela eta, eta "pararrayos" a ere hautsita dago, baina jendea lasaitze-

ko, ez omen dago arriskurik. Baina tximistaren defentsa ez dauka herriak. Dorrea oso altua da eta harri batzuk askatuak zeuden pararrayos hautsi zenean. Baina orain autobioako eztrandak direla eta, askoz gehiago erori dira eta hauek kalte ugari sortu dute elizako teilatuan. Ittosurak ugaritu dira eta bi edo hiru tokitan sapai puskak erori dira lurrera, eliz barruan. Konponketa azkarrak egin beharra dago.



□ **EPAko** jostungintza ikastaroa osatu da azkenean.

Kostatu da jendea biltzea



BAZTAN

# Abelzantza kurtsoak hasi dira Oronozko San Martin eskolan

Irailan hasi eta apirila bitarte 32 ikasle daude klasean

JOSEBA

17 eta 35 urte bitarteko hogeitamabi neska-mutil hasiak dira dagoeneko, Oronoz-Mugairiko San Martin eskolan ematen diren abelzantzari buruzko kurtsoetan. Irailean hasita apirila bitarte, hilabetean aste bat inguru pasatzen dute ikasgai ezberdinetan, guztira 200 ordu osatuz. Otsailan gazta egiten ikasteko klaseak emanen dira hogeitaz eta apirilaren ardiei ilea mozteko «*neozelandes modua*» ere ikasiko dute, eta honetarako 40 ordu izanen dira. Zerriek buruzkoak ekainatik azarora egiten dira eta hileko azkeneko ortziralean « *carnet de manipulator*» atera daiteke.

Nekazal gestio eta kontabilitateari buruzko kurtsoak ere hasi dira urrian, maiatza arte luzatuz. Hogeitabi lagunek eman dute ikastaro hauetan izena.

Bertzalde, Biolur Nekazaritza Biologikorako elkarteak antolatuta abelzaintzen arteko bilerak burutuko dira San Martin Eskolan azaroaren 16, 17, 18, 20, 24 eta 25ean, arratseko 7etatik 10etara.



Jose Uranga 'Biolur'eko partaidea egonen da San Martin eskolan abelzantzari buruz egiten diren bileratan



## Ramon Apezetxea: «Nekazariak konturatu dira beharrezkoa dela bizitzan ikastea»

Ramon Apezetxea, San Martin eskolako zuzendaria positiboki ikusten du hainbat jende heldu matrikulatzea. «Orain konturatzen dira beharrezkoa dela bizitzan ikastea, lehen ez zuten baloratu. Batzuk nekazaritzari etorkizuna ikusten diote eta bertzeentzat gure bizitzeko modua da». Aurtengo matrikulazioa iazkoarekin konparatuz mantendu egin da baina Ramonentzat «kontabilitatea kurtsoan 22 matrikulatzea, abelzantzan 32 apun-



tatzea baino inportanteagoa da». «Ikasgai gehienak erdaraz dira, irakasleak Iruñeatik etortzen bait dira» dio.

## W ttipi-flash

□ **Amaiurko** sarrera hobetzea eskatu da Hirurteko Planean. Sarrerako arku azpitik kamioiak ezin direla pasatu eta, karreteraren altura jeitsiko da. Bertzela, Punpulistatik barrena sartu behar dira kamioiak eta bide hau nahiko xehetua dago.

□ **Quinto Real** aldean guardiazibilak ehiztari talde bat harrapatu zuen orein hil bat eramaki zuela. Orain jarriko dieten multa 2 milioietara ailegatzen ahal omen da

□ **Auzako** kaskoan, Saioan eta orokorki mila metrotik gorako mendietan elurra ikusten da.

**IPINGI.**

ZATOZ ETA IKUSI

Santiago 88. Tfnoa: 580939  
ELIZONDO

**Udazkeneko moda  
Arropa eta Teletan**

**KASINO OSTATUA**

Jaime Urrutia 10 - ELIZONDO



## Ganberrismoaren aurkako neurriak eskatu ditu Esartek

Balleko Etxeari luzatu dio eskaria Elizondoko alkateak

JOSEBA

Pedro Mari Esarte, Elizondoko alkateak, ganberrismoaren aurkako neurriak eskatu ditu eta osasun publikoaren aurka doazen ekintzen kontrako Udal ordenantza bat egitearen aukera aztertzea eskatu dio Balleko Udalbatzari.

Balleko Etxeko Gobernu Batzordeak, bere aldetik, kontutan hartu ditu Elizondoko alkatearen eskariak eta berak denunziatzen duena soluzionatzeko "neurri egokiak" hartuko dituela adierazi du.

Esartek dioenez, "kexa ugari" jasotzen ditu herriko komertzianteen eskutik "asteburuetan karririk



Elizondoko ferien zai dago jendea, hilaren 30ean burutuko bait dira. Kanpoko genero aunitz ikusiko da segurki, eta erosteko, bertako diru guti izaten da azken urte hauetako "martxa"

pixaz, goitikakoaz eta zinkieriaz betetzen direla" erranez. Elizondoko alkatearen ustez beharrezkoa da bigilantzia, eta beharrezkoa

balitz, multak ere jartzea. "Komertzioen ate aintzinetan edo atearen kontra ere pixa egiten dela" dio azkenik, Esartek.

### W ttipi-flash

□ **Gaupasa** izanen da urriaren 31an Erratzun Xorroxin irratiak antolatuta, Balerdi-Balerdi, Pottoka eta Tapia eta Leturiarekin.

□ **Onddo** erakusketa eta perretxikoei buruzko ihardunaldiak izan ziren Arizkunenean hilaren 13tik 19ra. Interesgarriak izaten dira baina aurtengoan ez ziren onddo aunitz ikusi.

□ **100.000** pezeta eman ditu Udalak «Burdinaren martxarentzat».

□ **Baztan** aldean iratzea lehenago baino guttiago egitenda eta ehizturik usorik ez dute ikusten. Onddoak ere guti ikusten dire, baina ezkurra aunitz.

### OSKORRI LIBURUDENDA

Petrinea Tfnoa.: 592245  
ORONOTZ-MUGAIRI

**KIWI BAZTAN, S. A.**  
FRUTONDOAK ETA LANDARE ORNAMENTALEN  
ZUZENKO SALMENTA

MINDEGIA eta BULEGOAK:

Sutegia Etxea  
31795 LEKAROTZ

☎ (948) 58 11 01  
Fax-a: (948) 58 11 01




ZURE EZKONTZARAKO

FOTO eta BIDEO  
Erreportai on bat

ELIZONDO ☎ 580491  
DONEZTEBE ☎ 450364

MARKOEN TAILERRA eta zure  
karretek ORDU BATEZ REBELATZEN  
DITUGU "FUJI" kalitatearekin.



## BAZTAN ALTZARIAK zurgindegia

121 errepede nazionala, 54. km

Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mogleak
- Estiloko mogleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon
- Haritz eta gerezi egurretan egindakoak

URDAZUBI

**Karrika berritze eta bide hobetze obrak eman dira**

Amaiurko «Construcciones Goienetxe» enpresak egingen ditu biak 104 milioitan

ALIZIA OLAIZOLA

Azken Udal batzarrean adjudikatu ziren bide hobetze eta karriken zola berritze lanak. Bi obretarako sei proposamen presentatu ziren eta bietan Amaiurko «Construcciones Goienetxe» enpresak egin zuen eskeintzarik hobereana.

Honela, bideak hobetzeko obrak 42.840.820 pezeta kostako dira eta karriken zola berritzelanak, berriz, 61.256.125 pezetan truk egingen dira. Obren zuzendaria Eladio Guallart Domenech izanen da.

**Hirurteko planerako proposamenak**

Presentatu ditu Udalak Hirurtako planean egin nahi



*Jantzigintza ikastaroa urriaren 20an hasi zen 19 ikaslekin, klaseak Herriko Etxean izanez. Ikastaro honen arduraduna Berako Andoni Errandonea da eta irakaslea Anastasi Bidart. Iaz emakume denen artean emaztagai jantzi bat eginez bukatu zuten klaseak.*

diren obrak.

1993an, bideen moldatzearen bigarren fasea 44.417.000 pezeta kostako da eta Goiko Telleria auzora

ura eramatea 28.700.000 pezeta.

1994ean, Beheko Telleria auzora eramanez nahi da ura, hortarako 12.200.000

pezetatako gastua iragarrita dagoelarik.

1995ean, azkenik, herriko elektrifikazioa egin nahi da, horretarako 62 milioi gastatuz. Baita ere, Alkerdi eta Landibarauzoko argiteri publikoa egiteko 15.200.000 pezeta iragarrita daude.

☐ **Herriko** medikua Benedicto Agirre, oportuntan dagoenez bertze mediku bat dago herrian. Benek sasoin huntan oporrak hartzen ditu ehizirat joateko Etxalar alderat.

☐ **Sasoina** den bezala, aipatuko dugu ere hemengo laborariak bukatzen ari direla iratze eta arto ensilatze lanak.

 **ARMUA**  
**Jatetxea**  
Zugarramurdiko karretera 3. Km  
Tfnoa.: 59 9131- URDAZUBI

**NARBARTEKO**  
**HERRIKO**  
**OSTATUA**  
**MENUAK eta KARTA**  
San Andres 1 • NARBARTE

 **«ZALDUBI»**  
**SUKALDE**  
**MOBLEAK**

Altzari fabrikazioa eta muntaia

Zaldubia Poligonoa, Tfnoa: 58 05 62  
**IRURITA - BAZTAN**

**J. M. ANDUEZA IRIARTE**  
**Instalazio elektrikoak**

☛ *Sua itzaltzeko tresna guztiak*

- Mangerak
- Extintoreak
- Ateak: R-30, R-60, R-90. etab...

☛ *Alarmak: Suarenak, lapurretarenak...*

Askain Karrika 12 ☎ 630854 - **BERA**

ZUGARRAMURDI

Oporrak akituta bertze aferetara lotzen da jendea

KORO eta MARGARI

Urrian gaude eta ia neguko giroan sartzen ari gara. Bestak, oporrak, ondartzak... alde batera utzi eta bertze aferetan sartzen da jendea.


Hemen alde batetik urriaren 20an hasi zen euskara ikastaroa; IKAK antolatuta 10 lagun biltzen dire eskoletan astean hiru egunez arratseko 8etatik 9,30etara Jon Larretxea maestruarekin.

Bertze aldetik ere, ber-

tze kuadrila bat euskal dantza ikastaro batean sartua da; hauek Sararat gaten dire ortziralero arratseko 9tatik 10,30etara, han "Zazpiak Bat" taldeak antolatua baitu ikastaro hau. Ikasten dituzten dantza batzuk hauek dira: Larrain, Zazpi Jauzi, Murtikoak, etab...

Sagardotegi berria edeki da

Orain berriki sagardotegi bat edeki da herrian. Bere izena "Kupela" du eta Gonzalo Garmendia da ar-



duraduna.

Erran behar da kupelako sagardoa urte guzian eskeinitiko dutela, eta hau gauza berria da herrian. Lehenetxe gehienetan beren sagardoa

egiten zuten eta sagardoa ez zen bertze munduko gauza, baina hau aspaldi galdu zen. Hala ba, sagardotegi bat ondoan izatea ez dago batere gaizki.

SUKALDEAK ERAKUSKETA ZABALA

BAINUAK ESKEINTZA BEREZIAK

- Moble lakatua 80koa
- Marmolezko entzimerak
- Lababo mobledunak
- Ispilua aplikarekin 80 x 110

47.400 pztatik aintzinerak (montaia eta IVA barne)

KOLTZOIA

(5 urtetako garantia)

ESKEINTZA PREZIOA eta LAMINA SOMIER BAT OPARITZAT

ESKEINTZAK



Bidasoa, 45, 60

630537, 631443 - BERA

ARMARIO ENPOTRATUAK

Manpara plegablea

32.000 pztak  
Montaia eta IVA barne

SIMMONS

KOLTZOIAK

Arazoak

bizkarrekoak direnean

## EZKONTZAK

**Imanol Iturria Arburua** eta **Amaia Razkin Calvo**, Etxalar eta Iruñekoak, abuztuaren 29an.

**Pedro Juan Lasaga Zubieta** eta **Maite Goienetxe Iparragirre**, Etxalarkoak, irailaren 26an.

**Fco Javier Sarratea Juanikotena** eta **M<sup>a</sup> Asun Urrutia Juanikotena**, Ziga eta Amaiur, irailaren 26an.

**Fernando Munarriz** eta **Mertxe Etxenike**, Iruñea eta Goizuetakoa, irailaren 11an.

**Manuel Telletxea Iparragirre** eta **M<sup>a</sup> Eugenia Iraola**, Igantzi eta Narbartekoa, urriaren 3an.

**Javier Ignacio Saldise Amestoi** eta **Maria Ezkieta Iturralde**, Iruñekoak, abuztuaren 22an.

**Jose Martin Zozaiia Ziganda** eta **Anabel Ursuegi Mendiburu**, Urtrotz eta Azpilkueta, irailaren 26an.

**Gregorio Sein Ordoki** eta **Josefa Goñi Ordoki**, Igantzi eta Iturengoak, urriaren 24ean.

**Severiano Matxiñena Iribarren** eta **Juana M<sup>a</sup> Mariezkurrena**, Urtrotz eta Eratsungoa, urriaren 10ean.

**Emilio Zabala Glez.** eta **Txaro Ezkurra Zunzarren**, Doneztebekoak, urriaren 11an.

**Jaime Agirre Garcia** eta **M<sup>a</sup> Jesus Mikelarena Telletxea**, Doneztebe eta Iturengoak, abuztuaren 31an.

## JAIOTZAK

**Jokin Mariezkurrena Jauregi**, Ezkurran, irailaren 28an.

**Ekaitz Lameirinhas Mutuberria**, Elizondon, irailaren 9an.

**Mikel Colas Elizalde**, Oronotz-Mugairin, irailaren 16an.

**Joseba Iraola Otxandorena**, Almandotzen, irailaren 20an.

**Mattin Jaunsaras Santxotena**, Erratzun, irailaren 19an.

**Silvia Agirre Sarratea**, Almandotzen, irailaren 22an.

**Oihana Retegi Bengoetxea**, Arraiotzen, irailaren 26an.

**Iker Atxa Urbetz**, Elizondon, urriaren 1ean.

**Naroa Telletxea Zaldain**, Elizondon, urriaren 6an.

**Beatriz Jorajuria Iribarren**, Arraiotzen, irailaren 29an.

**Joseba Inarrea Mitxelena**, Erratzun, urriaren 14ean.

**Damien Fourquet**, Saran, urriaren 15ean.

**Pierre Libie**, Saran, urriaren 11an.

**Patxi Goyenetxe**, Saran, urriaren 5ean.

**Fernando Etxegarai Lopez**, Lesakan, urriaren 5ean.

**Jaione Cordoba Indaburu**, Zugarramurdin, urriaren 7an.

**Jon Jorajuria Elizondo**, Arantzan, abuztuaren 5ean.

## HERIOTZAK

**Teodora Herrero Buron**, Lekarotzen, irailaren 18an, 96 urte.

**Antonio Labaien Fernandez**, Elizondon, irailaren 14ean, 75 urte.

**Bernardo Gaztanbide Gortari**, Lekarotzen, urriaren 17an, 87 urte.

**Mercedes Iribarren**, Saran, urriaren 16an, 74 urte.

**Iñaxi Arrieta**, Saran, urriaren 15ean, 62 urte.

**Miguel Sarratea Senosiain**, Urdazubin, urriaren 12an, 67 urte.

# Iris Floristeria

## Domi Sainduko kanpaina

X Zentroak

X Kanposanturako loreak

X Enkargoak

Jaime Urrutia, 21 Tfnoa: 581 053 - **ELIZONDO**


# Es kisaroi jatetxea

Jaime Urrutia,  
Tfnoa.: 580013  
**ELIZONDO**



## HERRI KIROLAK

### Lehen eta bigarren mailako aizkolari txapelketak jokatu dira Elizondo eta Donezteben



Mindegiaurrek bi finaletan izanen dute ordezkaria

Urriaren 30ean, Elizondoko feriak direla probetuz, Nafarroako lehen mailako aizkolarien txapelketa jokatu da.

Finalean aritzeko klasi-fikatu diren bortz aizkolaria honako hauek dira: Mikel Mindegia (Zubieta), Antonio Jaunarena (Zubieta), Donato Larretxea (Bera), Floren Nazabal (Etxarri Aranaz) eta Jose Antonio Loiarde (Zubieta). Egin beharreko lana, kanaerdiko lau enbor, 60 ontzako bertze lau enbor eta 72 ontzako bi enbor ebakitzea izanen dute. Faborito nagusiak Mikel Mindegia eta Donato Larretxea izanen dira, Floren Nazabal gaztea -23 urte bertzerik ez-alde batera utzi gabe. Kontutan hartu beharra da ere Jaunarena, klasi-fikatorian bigarren gelditu

bait zen eta Loiarde bere lehen finalean zer egin dezakeen ikusteko dago.

### Bigarren mailakoa Donezteben

Bigarren mailako aizkolari txapelketa, berriz, Doneztebeko ferietan burutuko da. Urriaren 4ean Anizen jokatuak kanporaketan, 19 aizkolarien partaidetzarekin, honako hauek lortu zuten finalerako txartela: Patxi Larretxea, Jose Juan Barberena, Patxi Mindegia, Juan Jose Erdozia eta Juan Jose Lopez.

Finalean egin beharreko lana, ez da kategori honetan ere errega izanen:

l'05 metrotako lau enbor ebaki ondoren, l'25 metrotako bertze lau ebakiko dituzte txapelaren itzailaren bila.



### Sub-20 eta emakumezkoen Herri Kirol finala Elizondon

*Azaroaren 7an burutuko da*

Emakumezkoen eta hogeiturotik behitiko gizonetzkoen Herri Kirol txapelketaren finala azaroaren 7an burutuko da Elizondoko frontoian arratsaldeko 6,30etatik aintzineria.

Parte hartzen duten herri kopurua altua dela eta -sub-20 kategorian zortzi eta emakumezkoetan be-

deratzi- kanporaketa jokatu da aintzinetik Berriozarren azaroaren lehen, goizeko 11etan mutilak eta arratsaldeko 4,30etan neskek. Egin beharreko lana froga konbinatua eta sokatira izanen da. Azken honetan, mutilak 580 kilo azpitik egon behar dira eta emakumezkoak, berriz, 500 kilo azpitik.

## Hamabostaldiko jokaldiak



**Emakumezkoen** herri kirol txapelketaren partaidetza.

Orain arte gizonetzkoen kirola kontsideratu den honetan, ez da txantxetakoa emakumezkoen 9 talde aurkeztea txapelketara, bertze horrenbertze herri ordezkatzu. Animo!!!

**Edozein** txoriri tiro egiten duten «ehiztariak».

Usoa gutti pasatzen dela, goitik datorrela, eguraldi txarra dela... dena delakoarengatik badira edozein txori klaseri tiro botatzen dioteneskopeteroak. Pazientzia!!!

## «Lesakako Laminaciones» en etorkizuna inoiz baino ilunagoa

*Administrazio zentralak, CSIren bitartez, AHVn 3.500 lanpostu murriztea proposatu du*

*Europako Ekonomi Elkartek, altzairu produkzioaren Plan berria bultzatu nahian dabil eta horren arabera, Europa osoko produkzioa banatuta utzi nahi du.*

*Estatu espainolari dagokionez, Ensidesa eta AHVren artean 10.000 lanposturen galera suposatzen du Plan horrek, eta Lesakako Laminazioak bezalako 'planta akabadoretan' izanen duen eragina ere kontutan hartzekoa da segurki.*

*Kontestu honetan, CSI-Siderurgia Integralaren Korporazioa deiturikoa eta sindikatuen mahaia, pare bat aldiz bildu dira Plana negoziatzera, produkzio eta enplegu mailan planak izanen duen eragina negoziatzera, alegia. Emaizak, sindikatuen hitzetan, arras exkasak izan dira eta presio modura Burdinaren Martxa burutu berria dute.*

Joseba IGARABIDE



Estatu mailan Siderurgia Enpresa berri bat sortzea (Ensidesa eta AHV) bilduko dituen eta enpresa berri hori Europa mailan konpetitiboa izateko berregituratzea omen da Administrazio Sozialistaren asmoa.

**G**obernu Zentralak CSI edo Korporazioaren bitartez, Siderurgia Integralaren bermoldaketa gauzatu ahal izateko prestatu duen Planaren arabera, Ensidesa eta AHVren artean 10.000 lanpostu sobran daude (6.500 Ensidesan eta 3.500 AHVn) eta produkzioa ere 5,5 Tonatik 4,5 Tonatara jautsi beharko

omen da. Plan Laboralaren atalean, berriz, 52 urteetatik gorakoentzat aurrejubilazioak jarri nahi ditu martxan, oraindik batere argi ez dauden kondiziotan. Langileen kobertura soziala ere ez dago oraindik zehaztua.

Eta guzi honetaz aritzeko antolatutako negoziatio mahaia ez du inolako emaitza garbirik eman, dirudienez, eta gauzak horrela, Labe Ga-

raietako eta Lesakako Laminazioetako hainbat langilek 'Burdinaren Martxa' izeneko burutu berri dute administrazioa bortxatu nahian eta aldiberean gizartean arazo honen inguruan kezka sortzeko asmoarekin.

Bertalalde, Euskal Gobenuko Azua kontseilariak Lesakan inguruko alkateekin egin asmo zuen bilera «sine die» atzeratuta gelditu da.

## Laminaciones-etik Madrileran martxa



### Sindikatueta ordezkarien eritziak

1.- Siderurgia bermoldaketa planak, zer suposatzen du eta zein fasetan daude? 2.- Zertan daude negoziatioak? 3.- Zein da ibilaldiaren helburua? 4.- Zenbatekoa da LLko langileen erantzuna eta sentsibilizazioa? 5.- Eta zonako jendearena?



ANTONIO MARTINEZ  
UGT

1.- Sei hilabeteotan ez dugu deus lortu plan komertzial-industrialean, eta arras gutxi laborean. Korporazioak oso kapazitate gutxi dauka negoziatzeko eta ministaritzaren erizpideak segitzen ditu. Mobilizazioa da bide bakarra.

2.- Hautsiak.

3.- Eritzi publikoa sensibilizatzea litzateke. Jakinerazi behar da kanpotar siderurgiak inbaditzen ari gaituela. Produzio kapazitatea mantentzea ere negoziatu nahi dugu.

4.- Langileak kezkatuak daude baina jefeez, zurrumurruek bitartez deus ez dela gertatzen sinestarazi nahi digute, eta hori gezurra da.

5.- Haundia, lehendik jada zona kastigatua baita.



FERNANDO AROZENA  
CCOO

1.- Bermoldaketa planak sekulako eragina du sozial eta ekonomia mailan eta gainera, lehendik jada kastigatuak dauden zonetan.

2.- Negoziaziorik izan ez denez beharrezkoa ikusten dugu mobilizazioak egitea.

3.- Helburua Korporazioak duen kompetitate plana aldatzea da, plan komertzial berria egin eta altzairua produzitzeko kapazitatea mantentzea. Orain aurkeztu duten planak ematen duen kobertura ACENOREkoaren antzekoa da eta hori langileentzat kaltegarria da.

4-5.- Ez dago nahiko kezka eta informaziorik ez langileetan eta ezta zonako instituzioetan problemak duen larritasunaz.



ENRIQUE LOPEZ  
ELA

1.- Sekulako kontzesioa da Europar altzairu produktoreentzat. Plantillaren %60a eta produzioaren %40a galduko dira.

2.- Korporazioak bukatutzat eman ditu egon ez diren negoziatioak, eta Administrazioa erabakitze-ko unean dago. Agian, ibilaldi hau amaitu orduko jendea kalertzen hasiko dira negoziatioan adostasunik gabe.

3.- Helburu zehatz eta bakarra sinesgarria den plan industrial bat lortzea. Gainerako guziaz intoksikatzea da.

4.- Sentsibilizazio maila arras ona da, 'Kudroek' jokatzeko duten papera alde batera utzita.

5.- Onargarria. Kolektibo guzieren erantzuna txalotzekoa da.



JULEN MITXELORENA  
LAB

1.- Labeak ixtea suposatzen du. Akabadoretan ez da plana aurkeztu baina produzioa minimo-tara jautsi nahi dute.

2.- Ez da inolako akordiorik lortu eta kanporaketak egiten hasi dira 3.500 espediente aurkeztuz. Kontrainformea egin da eta administrazioak erantzun beharko du.

3.- Korporazioaren intransigentzia salatu eta administrazioa bortxatzea, eritzi publikoa sortuz. Arzoa AHVko langileen ez ezik, gizarte osoarena baita.

4.- Langileak kezkatuak daude baina 'Cuadros'ekoekin ez gaude konforme.

5.- Jendeak ez du sinisten hau itxiko denik.



PELLO ASTIZ  
ESK-CUIS

1.- Kabezeraren desagerpena eta akabadoretan, epe laburrean izugarriko eragina izanen du.

2.- Geldituak. Aipatu behar gu ez gaudela mahaian eta dena den hilabete hau erabakiorra dela ministeritzak erabakiko baitu planari buruz.

3.- Kabezera eta lanpostuak mantentzeko gogor egin beharko delakoan gaudela. Ibilaldia borroka honetan lehendabiziko pausua litzateke, sensibilizazioa lortzea.

4.- Langile aunitzek ez dute sinetsi nahi ze ondorio ekarriko dituen bermoldaketak.

5.- Eskualdean kezka badago, nahiz eta kezka hori ez mobilizazioetan bihurtu.



## «Azaro antimilitarista»: Eskualdeko Intsumiso taldeak antolatutako bake aldarrikapena

*Intsumisioa zer den eta nola egin daitekeen intsumiso ez da edonork dakien kontua: fenomeno hau esplikatze eta, bidenabar, ahal bezain ongi pasatzeko "Azaro antimilitarista" antolatu du Zugarramurdi-Baztan eta Bortzirietako Intsumiso eta Antimilitaristen taldeak. Ekitaldi ugari prestatu dituzte hilabete honetarako: Azaroaren 13an Lesakan intsumisioari buruzko hitzaldia izanen da Arrano elkartearen soziologo baten eskutik.*

*Azaroaren 20an Elizondon, Udalerrri intsumisioei buruzko hitzaldia emanen da, Orbaiztako alkatea eta Aezkoako jendearen eskutik, Baztandarren Biltzarraren lokaletan. Gauean, rock jaialdia "Plaza de Abastos" en Alkolherria eta Ruido de Rabia taldeekin. Azkenik, azaroaren 27an Zugarramurdin, Intsumituen errepresioa izenburupean hitzaldia izanen da Santi Quiroga objetorea eta Iparraldeko Intsumituek emana eta ondoren, Zugarramurdiko txalapartariak eta Pottokarekin jaialdia izanen da. Leku guzti hauetan intsumisioari buruzko erakusketa ere egonen da. Azaro antimilitarista da, hain zuzen, talde honen bake aldarrikapena.*



'Azaro Antimilitarista' izenarekin, Lesaka, Elizondo eta Zugarramurdin hitzaldiak, erakusketak eta rock jaialdiak antolatu ditu Intsumiso eta Antimilitaristen taldeak

# S

oldaduzkara joan beharrean intsumiso deklaratzeko gero eta gazte gehiagok hartzen duten erabakia izanik ere, gure alderdi honetan ez da gauza bera gertatzen. Nafarroa eta Euskal Autonomi Elkartearen izanik estatu espainoleko kopururik altuenak

eskeintzen dituztenak, ezin erran intsumisio kontutan hemen aintzindari garenik.

Halere, objezio eta intsumisioa ez da gure artean gauza berria. Bortzirietan erraterako, intsumisio kasu batek eraginda, Udal guztiak beraien burua intsumisotzat



aldarrikatu zuten, "nahiz eta gero bakarren batek giberat jo Governadore Zibilararen presioa zela eta" —dio Modestok, garai hartan 'Bortziritako Objeto eta Intsumiso' en taldeko partaidea izan zenak.

Momentu hauetan epaiketaren zai dagoen Raimon baztandarrak dioenez, "jendea ez da intsumisioaren kontuetaz sobera jabetua inguru honetan. Halere, badaude laguntzen zaituztenak eta badaude baita, arront pasiboak direnak". Bertzalde, "etxekoen presioak ere kontutan hartzekoak direla" uste du German zugarramudiarrak. "Gartzelara joateko arriskuak ere beldurtu egiten du" nahiz eta mahaiaren inguruan daudenak diotenez, "kontu hori ez da inondik



Intsumisioa zer den, nola egin daitekeen intsumiso eta gainerako informazio eta laguntza guziaz emateko antolatu da Zugarramurdi-Baztan-Bortziritako Intsumiso eta Antimilitaristen taldea.

ere berdina aintzinetik jakinda zure inguruan baduzula talde bat edozein momentutan kanpotik lagun-

tzeko prest dagoena". Horixe da, hain zuzen ere intsumiso taldearen betebeharretariko bat horrelako

kasuren bat inoiz gertatuko balitz. Eta jakina, "laguntza estimagarriagoa izanen da, laguntza eskeiniz udalbatzak, alkateak eta instituzioak heldu direnean".

## 'Cajan' sartzekotan daudenentzat mezua

Garaian gaudenez, zera erran nahi diete egoera horretan aurki daitekeen edozein gazteri, "anima daitezela intsumiso deklaratzera eta kontutan har dezatela momentu hauetan zona mailan badagoela talde bat behar duen informazio eta laguntza guziaz emateko antolatua dagoena, ez dela bakarrik aurkituko arazo berri baten aintzinean, nola egin jakin gabe..." Eta bideak errazteko 580360 telefonoa eskeintzen dute kontaktuan jartzeko, Aitor-ez galdetuta.

Joxemanuel IRIGOIEN

## HIRU GAZTE EPAIKETAREN ZAI



**RAIMON DORREGARAI**  
Irritakoa

1989ko martxoan egin nintzen intsumiso, objektorei emandako amnistia-  
ren ondotik. Fiskalak 16-18 hilabetetako kartzelaldia eskatzen du eta 30.000 pztatako fiantza ordaindu behar izan dut.



**GERMAN ARBURUA**  
Zugarramurdikoa

Urte bat eta bi hilabete dira jada intsumiso naizela. Lehengo egunean zitzazioa izan nuen eta 18 hilabete eskatzen ditu fiskalak eta 15.000 pezetatako fiantza pagatu behar izan nuen.



**AITOR RUIZ DE LARRINAGA**  
Elizondokoa

1991ko urtarrilan egin nintzen intsumiso eta nire kasuan ere fiskalak 18 hilabete eskatzen ditu. 10.000 eskatu zidaten fiantza modura baina ez nituen ordaindu, intsolbente deklaratu nintzen.

# MERKATU TTIKIA

## Etxebizitzak

• **Elizondon** Txokoto karrikan pisua salgai. 3 logela, sukaldea, jangela, 2 balkoirekin. 5.500.000 pzta. ☎ 581001.

• **Baserri** edo borda alokatuko genuke eskualdean. ☎ 450769.

• **Elgorriagan**, eraikuntza berriari atikoa salgai. ☎ 943-215938 (Begoña).

• **Beran** pisua salgai. ☎ 630637.

• **Leitzan** pisu amueblatua salgai. ☎ 510500.

## Lana

• **Beran** edo **Lesakan** lan eginen nuke, haurrak zaintzen edota etxeko lanetan. ☎ 637911 (Eburne).

• **Elizondoko** neska asteburuetan lan egiteko prest dago; haurrak zaintzen, etxeko lanetan, edota komertzio batean (Elizondon). ☎ 580398 (Rakel).

• **Hondarribian** 20 urtetik gorako neska interna behar dut. Haurra zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. ☎ 943-643605

## Salerosketak

• «**Nintendo**» bideo-jokoa eta 'Mario Gros' salgai. 17.000 pzta. ☎ 637372.

• **700** akazia pikete salgai. ☎ 635218 (7etatik aintzinera).

• **Lokal** bat salgai Berako San Esteban 37an. 70 m<sup>2</sup> + 40 m<sup>2</sup> sotanoan. Norbaitek denda edo bulegoa montatzeko nahiko balu, dena prest du. ☎ 630970.

• **Mendi** bizikleta, Peugeot LX salgai. ☎ 630599.

• **Akordeioa** salgai, Crucianelli markakoa, 120 bajo, egoera oso onean. ☎ 637103.

• **Collie** txakurkumeak salgai. ☎ 599218.

• **Eskopeta** ona salgai, 'Lambert superpueta' markakoa, selekzionadorearekin. ☎ 510132.

• **Akordeioa** salgai, Welameisaer markakoa eta 96 bajukoa. Egoera oso onean. ☎ 510249.

• **Kamioi** bat salgai, 20 tonakoa. PMA daukana. Tarjeta komarkalarekin, NA-K. Prezio merkea eta egoera oso onean. ☎ 510203 (gaeuz).

• **Egurrezko** sukaldea salgai 'Dietrich' markakoa, 60 zmtakoa. Bigarren eskukoa bainan egoera onean eta merke. ☎ 637780 (eguerditan).

• **Ordenadoreak** salgai, AT286, 386, 486. Konfigurazio bereziak. ☎ 637064 J. Javier. (6etatik aintzinera).

• **Honda** 600 Trail eta kitarrarentzat 100 Wko. anplifikadorea salgai. ☎ 630922. Jabier.

• **Artzai** zakurkumeak saltzen ditut. ☎ 504492.

• **FIAT** traktorea, 50 CVkoa salgai. Lau ruedetan trakzioduna. Egoera onean. ☎ 450474.

## Denetarik

• **Lesakan** ingeles klaseak emanen nituzke. ☎ 637940.

• **Belarritako** bat galdu dut Etxalarko Usategietako Jatetxearen inguruan urriaren 11an. Norbaitek aurkitu badu, deitu. ☎ 450029.

## Harremanak

• **Lesakako** Izaskun Zubietarentzat. Zorionak zure 14. urtebetetzean zorionik beroena. Lesakako

lagunak M, T, S, A, M.

• **Arantzako** txoritarrentzat: Ez egin horrenbertze pio-pio-pio. Zer moduz zure kotxe fantastikoarekin? Muxu bat Doneztebeko kaiolak

• **Iruñako** Olite kaleko urrezko iledun eta berritsua den Piliri, urte askoz, bihotzez, Leitzatik E, Tx.

• **Lesakako** Jon Silbeirarentzat: Zure bertsoek emozionatu egiten naute. Gauero zurekin amets egiten dut, zure gorputz politik erotuta nauka. Muxuak. La Frantzesia.

• **Doneztebeko** Sanbarrentzat: zorionak zure 25. urtebetetzean. Lagun bat.

• **Alduntzinbordako** Milari: zorionak bere urtebetetze egunean. Pili, Koro eta Mari Jose.

• **Elbeteko** Agustinari: ya que ta ez dizut eskutitzik idazten espero dut behintzat honekin barkatzea. Muxu haundi bat zuretzat eta Imanolentzat.

• **Leitzako** Xabier Lazkanori: zorionak zure 11. urtebetetzean. Zure guraso eta anaiaren partez.

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA IGORRI GURE BULEGOETARA EDO TELEFONOZ DEITU.

Testua: .....

**ttipi-ttapa**

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188

**ttipi-ttapa** ZEURE ETXEAN DEBALDE HARTU NAHI BADUZU, EMAN ZURE IZENA!!

IZEN-DEITURAK .....


HELBIDEA .....

HERRIA ..... Tfnoa: .....

**ttipi-ttapa**

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188

# KOLORETAKO ERREGALOAK!!



Hastekoz

## DEBALDE

TELEBISTA BAT edozein

## RENAULT \*

modelo erosteagatik

\* Stock-ean dauden ibilgailuak

Eta gainera

## BALDINTZA

## EZIN HOBEAGOTAN

*Zatoz zurearen bila*



ZURE BEHARREN ARABERAKO  
FINANTZIAZIOA ESKAINTZEN DIZUGU



**RENAULT**  
Sarea

- **Baztan:** P. Garmendia – Elizondo
- **Malerreka:** Talleres Santesteban – Doneztebe
- **Bortziriak:** Semper Anaiak – Bera

# II. PERRETXIKO IHARDUNALDIAK

❖ 1992ko azaroaren 5etik 8ra ❖

## Azaroak 5:

❖ Hitzaldia 7,30etan: "Zer dira ondoak"

## Azaroak 6:

❖ Hitzaldia 7,30etan: "Ondo jangarri eta kaltegarriak"

## Azaroak 7:

❖ Perretxiko bila mendira goizeko 8etan.

## Azaroak 8:

❖ Perretxiko eta eskulan erakusketa goizeko 10etatik aintzinerara Altzateko frontoian.



# BERA

## Antolatzaileak:

- ❖ Ehizi eta Arrantza Elkarte
- ❖ Gure Txokoa Elkarte

## Laguntzaileak:

- ❖ Kutxa Munizipala
- ❖ Udal Kultur Batzordea

*Zatoz gurekin ondo bila!*



# ALMACENES ETXANIZ, S.A.

Lesakako Iturria anaiak

*Nahi izanez gero,  
instalazioaz arduratzen gera.  
Eskatu baldintzak*

## ZURE BAINURAKO BEHAR DUZUN GUZTIA:

- × MOBLEAK
- × GRIFERIAK
- × MANPARAK
- × AZULEJOAK
- × SANITARIOAK
- × OSAGARRIAK

*Prezistentiak  
Konpromisorik  
gabe*

**Juan Arana, 3**  
**Tfnoa eta faxa: (943)**  
**61 17 67**  
**IRUN**